



BALIO PROPOSAMENA

Irati Etxabe, Garazi Mikeo, Ibai Perez, Ibai Etxeberria eta Haizea Ruiz gara eta elkarrekin "Fitore" enpresa osatzen dugu. Gure enpresak duen helburu nagusia, sortuko dugun aplikazioarekin jendearen eguneroko bizitza errazten laguntzea da.



Gure aplikazioak jendearen egunerokoa planifikatzen lagunduko du, horretarako egutegi bat egongo da agenda moduan erabili ahal izateko, aldi berean, jendea ondo elikatu ditzan elikagai ezberdinen informazioa egongo da eskuragarri. Hontaz aparte, dietak ere egin ahal izango dira. Honekin guztiarekin, esan bezala, jendearen elikadura hobetzen lagunduko du aplikazioak. Bizitza errazten eta modu honetan eguneroko estresa murrizten.

Gure aplikazioa erabiltzen dutenek denbora asko aurreztuko dute, horretaz gain, osasuntsuagoak bihurtuko dira eta zorientsuago izango dira. Helburu hau lortzeko honako balioak izango ditu:

Pertsonalizazioa nabari izango da gure aplikazioan, izan ere, pertsona bakoitzak bere eguneroko, bere beharren arabera zehaztuta eduki ahalko du eta gainera, erabiltzaile bakoitzak bere dieta propioa sortu eta jarraitu ahalko du.

Erabiltzaileen **lana erraztea** da gure proiektuaren helburu nagusia. Hau, beraien egunerokoa planifikatuz eta organizatuz egin ahal izango dugu. Hortaz gain, haien dietak planifikatu egin ahal izango dira eta elikagaiei buruzko informazioa egongo da eskuragarri.

Balio kuantitatiboari buruz hitz eginezkerok, aplikazioa deskargatzea musutruk izango da. Gainera aplikazioak eskeiniko dituen zerbitzu (dieta, plangintza, nutrizioari buruz informazioa...) guztiak ere dohainik izango dira. Gure ustez osasun on bat edukitzeko laguntzak ala izan beharko luketelako.



FITORE

Eskuragarritasuna ere gure aplikazioak eskeintzen duen balio nabari bat da. Izan ere, mugikorra gainean eramaten dugulako eta ondorioz, edozer gauza agendan apuntatzeko, dieta pertsonalean jan nahi duzuna edo erosketa egitean behar duzuna gogorarazteko bertan izango duzulako. Gainera, aplikazio bat denez deskargatzeko erraza da.

Bestetik, **erabilerreztasuna** izango litzake, erabiltzeko ez dituelako zailtasun asko izango eta denek erabiltzeko modukoa delako. Baita ere, hasieran urratsak izango ditu horrela laguntza gehiago izateko eta hasieratik ondo abiatzeko.

Gure aplikazioan, **arriskuak murrizak** dira, izan ere, segurua da eta ez du fraude arriskurik. Nahi izanez gero, zure erabiltzailea guztiz anonimoa den erabiltzaile bat sortu daiteke, modu horretan, ez dituzu zure datuak partekatu beharko.